

# gaz-teak



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Doako alea

380 zb.  
[www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)

>> 2023ko uztaila



## Nabarmen<sup>tzekoak</sup>

- > EuskarAbentura Euskal Herria ari da jada zeharkatzen, 125 gazte protagonista direla
- > Eskubeltzeko 25 eskaut boluntario proiektu batean parte hartzen ari dira Marokon
- > 12 getxotar Atenasera joango dira udako gazte-truke batean

## Uda solidarioa BizkaiaGararekin

Herritarren ekintzarako, boluntariotzarako eta lan komunitarioarako espazioa da BizkaiaGara. Bizkaiko Foru Aldundiak, EDE Fundazioak eta BBK-k bultzatutako proiektua da, eta hila-bete hauetarako programatutako ekimen solidarioei buruzko informazioa eskaintzen dizu: auzolandegiak eta turismo solidarioa, boluntariotza Bizkaiko

erakundeetan, brigadak, aisialdia eta denbora libre hezitzailea eta familia-harrerak. Bere web orrialdean (<https://labur.eus/KrbZ7>), udan sortzen diren boluntariotzako behar eta aukera guztiak taldekatu eta ordenatzen ditu, interesa duen edonork bere oporren zati bat proiektu solidarioen batean laguntzeko aukera izan dezan.



### Gidabaimena euskaraz lortzeko diru-laguntzak

Beste urte batez, **Gidabaimena Euskaraz** kanpaina jarri da abian, 17 eta 23 urte bitarteko gazteak gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz egitera animatzeko. Kanpaina honen bidez, Udalak 100 euroko diru laguntza emango die ekimenarekin kolaboratzen duten udalerriko sei autoeskoletako batean karnetaren azterketa teorikoa euskaraz egiten duten gazte guztiak. Aurten, 745 gazte gehotari bidaliko zaie etxera kanpainari buruzko informazioa eta, aurrekoetan bezala, 100 euroko hiru txartel zozketatuko dira gasolina erosteko. Argazkian, iazko edizioan txartelak irabazi zituzten hiru gazteak ageri dira: **Ibone Blas Basañez, Arantza Díez Pinedo eta Ager Etxebarria Pérez.**

## BEKA SARIAK

\* **2023ko Gazte Kultura Bona.** 2023an 18 urte betetzen dituzten pertsonak (2005ean jaiok) Gazte Kultura Bona eska dezakete: 400€ kultur produktu edo zerbitzuetan erabiltzeko. Espainiako gobernuaren ekimen bat da, gazterian kultur produktuen kontsumo ohiturak sortzeko eta pandemian zigortutako kultur sektorea biziberritzeko. Irailaren 30era arteko informazioa eta eskaerak hemen: <https://bonoculturajoven.gob.es/>

\* **2023/24 ikasturteko unibertsitate-beka** 2022ko abenduaren 31n EAEn erroldatutako ikasleentzako, ikasketak Euskadin edo Estatuak gainerrako lekuetan egin behar badituzte ere. Eskabideak aurkezteko epea: irailaren 15era arte. Informazioa: [uni.ikasketak@euskadi.eus](mailto:uni.ikasketak@euskadi.eus) edo Zuzenean zerbitzua (945 01 80 00).

### Romoko Gaztelekuaren programazioa

#### Utziaila

**Hilak 6, osteguna:** BROTXETAK  
**Hilak 7, ostirala:** IRTEERA: GORLIZKO ITSASARGIA ETA HONDARTZA  
**Hilak 12, asteazkena:** IZOZKIAK  
**Hilak 14, ostirala:** UR JOLASAK  
**Hilak 15, larunbata:** IRTEERA: BOLINTXU  
**Hilak 18, asteartea:** PICNIC  
**Hilak 20, osteguna:** ORIGAMI  
**Hilak 21, ostirala:** IRTEERA: KOLTSONETAK ETA HONDARTZA  
**Hilak 26, asteazkena:** FUTBOLIN  
**Hilak 27, osteguna:** LIMOI-SORBETEA  
**Hilak 29, larunbata:** IKASURTE AMAIERA

GureGune  
gaztelekuak

### Algortako Gaztelekuaren programazioa

#### Utziaila

**Hilak 7, ostirala:** IRTEERA: GORLIZKO ITSASARGIA ETA HONDARTZA  
**Hilak 8, larunbata:** MASTER CHEF: TAKOAK  
**Hilak 12, asteazkena:** EKULANAK: BUZTIN MOLDAGARRIA  
**Hilak 14, ostirala:** MASTER CHEF: FRUTAZKO BROTXETAK  
**Hilak 15, larunbata:** IRTEERA: BOLINTXU  
**Hilak 19, asteazkena:** PING-PONG TXAPELKETA  
**Hilak 20, osteguna:** MASTER CHEF: IZOTZ EDARIAK  
**Hilak 21, ostirala:** IRTEERA: KOLTSONETAK ETA HONDARTZA  
**Hilak 27, osteguna:** KARAOKEA  
**Hilak 28, ostirala:** FUTBOLIN TXAPELKETA

GauEgun  
gaztelekuak

## Uztailaren 31n Getxon amaituko da, 400 kilometro egin ondoren EuskarAbentura Euskal Herria ari da jada zeharkatzen, 125 gazte protagonista direla

Euskal Herriko eta diasporako 16 eta 17 urte arteko 125 gazte parte hartzen ari dira aurten EuskarAbenturaren laugarren espedizioan, uztailaren 31ra arte. Izen bereko elkarteak antolatuta, hainbat entitateen laguntzarekin, tartean Getxoko Udalarena (4.200€rekin eta hainbat baliabiderek laguntzen du). Lantaldeak gidatuta, gazteek 400 kilometrotan zehar kultura, osasuna, ekologia eta parekidetasuna bezalako baloreak indartzeko aukera izango dute, euskararen erabilera sustatzen eta gazte euskaldunen sare bat sortzen duten bitartean.

Maule herritik uztailaren 1ean irten ondoren, guztira 32 herritatik igaroko dira errealtate linguistiko, sozial, ekonomiko eta kultural anitzeko gazteak.



Espedizioa Getxora helduko da uztailaren 31n, Bizkaia Zubitik sartuko da, eta 10:30ean harrera ofiziala eskainiko diete Amaia Agirre alkateak eta Xabier Arauzo Bizkaiko Euskara zuzendari nagusiak.

Horren ostean, gazteak oinez abiatuko dira Teilagorri plaza-ara, Algortako jai batzordearen harrera jasotzeko; eta 12:30ean abenturari amaiera ipiniko dion ekitaldia ospatuko da Muxikebarrin.

## Eskubeltzeko 25 eskaut boluntario proiektu batean parte hartzen ari dira Marokon

17 eta 18 urte bitarteko 25 eskaut gazte esku-hartze sozialeko hainbat proiektutan parte hartzen dute Alhucemasen (Maroko). Algortako Eskubeltz Eskaut Taldekoak dira, eta urte hasieratik ari dira auzolandegi bat prestatzen.

Uztailean, alde batetik, inguruko haurrentzako hiri-udalekuak antolatuko dituzte, eta, bestetik, Cruz Blanca Fundazioaren Dar Assalam dibertsitate funtzionala duten pertsonen zentroko langileei lagunduko diete. Gainera, hango komunitate trinitarioaren bi proiektutan ere parte hartuko dute: bata, iragaitzako migratzaileak



hartzeko, eta, bestea, emakume marokoarrak gizarteratzeko.

Esperientzian parte hartzen duen gazte bakoitzak herriko elkarte bat aukeratu zuen ikasturte hasieran, eta ordutik ari

tu dira harekin lanean. Horien artean, San Nikolas Zabalik zegoen, etorkinen kolektiboa integratzera zuzendua. Esperientzia horri esker, Magrebeko pertsonak ezagutu eta haien testigantzak jaso ahal izan dituzte.

## 12 getxotar Atenasera joango dira udako gazte-truke batean

Aisibizia Elkarteko 15 eta 21 urte bitarteko 12 gazte Atenasera joango dira uztailaren 11tik 17ra, Atenasekin Europar egingo den udako truke batean parte hartzeko.

Getxoko elkarte hori Kiribil Sarea irabazi-asmorik gabeko erakundearen sareko kide

da, eta hainbat herritan antolatzen dituen kanpamenduez gain, hainbat gazte-truke jarri ditu abian, Europako beste talde batzuekin koordinatuta.

Helburua da gazteek mugitzeko eta ikasteko dituzten aukerak ezagutaraztea eta

zabaltzea.

Atenasko gazteek Getxo bisitatu zuten ekainaren 26tik uztailaren 2ra, eta arrazakeriaren eta diskriminazioaren prebentzioa, demokrazia eta parte-hartze demokratiko inklusiboa eta parte hartzeko modu alternatiboen sustapena landu zituzten.

## Pertsonalde, Pirinioez gaindiko zeharkaldian

Tu futuro, tu decisión lelopean, egoera ahulean dauden estatuko 220 gazte Pirinioez Gaindiko Zeharkaldi Sozial Solidarioan parte hartuko dute aurten. Zeharkaldi hori ekainaren 16an abiatu zen Hondarribiko Higer lurmuturretik, eta uztailaren 2lean amaituko da, Gironako Creus lurmuturretik.

Getxoko taldeak, Getxoko Pertsonalde GKEkoak, ekainaren 20ra arte parte hartu zuen zeharkaldian, Bartzelonako, Iruñeko eta Hondarribiko pertsonekin batera, eta ekimenean jarraitzen duten beste batzuei eman zien



lekukoa. Tradizioa bultzatzeko helburuarekin, bidearen proposamena da muga fisikoak eta pertsonalak gainditzea, eremu naturalean hezkuntza-dinamika bultzatzea, aniztasuna,

aterpea eta migrazioak bezalako gaiak lantzea, eta Kantauriko eta Mediterraneoko ura sinbolikoki batzea.

### Auzolandegia

Horrez gain, Pertsonalde hiri-ko auzolandegi bat antolatu du, bi txandatan, uztailean, migrazioen errealtaterara hurbiltzeko. Gazteen arteko aniztasun-esperientzia bat da (helduaroa), konpromiso komun batekin: herritartasun inklusiboa. Bi txanda ezarri dira: uztailaren 14ra arte eta uztailaren 17tik 28ra arte. Informazioa eta izen-emateak: [ainhoa@pertsonalde.org](mailto:ainhoa@pertsonalde.org)